



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA



Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan
Sektoriala:

Hasierako Onespen Dokumentua eta Ingurumen
Azterketa Estrategikoa

PARTE-HARTZEAREN HIRUGARREN FASEAREN MEMORIA

2023ko ekaina



Aurkibidea

- 1- SARRERA. DOKUMENTU HONEN XEDEA
- 2- TESTUINGURUAN JARTZEA. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSa EGITEKO PROZESUAREN BARRUAN GARATUTAKO PARTE-HARTZE PROZESUA
- 3- PARTE HARTZEKO GAITUTAKO KANALAK ETA PARTE-HARTZEAREN ADIERAZLEAK
- 4- JASOTAKO IRITZI ETA PROPOSAMEN NAGUSIAK
- 5- ONDORIOAK. PARTE HARTZEAREN ERAGINA

1

SARRERA.
DOKUMENTU HONEN XEDEA

Sarrera. Dokumentu honen xedea

Dokumentu honen xedea da jendartean aurkeztea Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean EB LPSa) partaidetzarako hirugarren prozesuan lortutako emaitzak, kasu honetan, Hasierako Onespren Dokumentuari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoari buruzkoa.

Parte hartzeko prozesu hau EB LPSaren lanketa-fase nahiko aurreratu batean kokatu da (ia amaieran), eta hori dela-eta, bere helburua, batez ere, dokumentuak aurkeztea eta azaltzea, eta informazioa ematea izan da, dokumentuen ezagutza hobetzeko eta, horrela, alegazio formalak bidaltzea errazteko,

Aurreko faseetan gertatu den bezala, parte-hartzea eragile instituzional, sozial eta ekonomikoen presentzia lehenetsiz planteatu eta garatu da. Horretarako, ikuspegi zabal batetik gai horrekin lotura handiena duten eragileen tipologiak identifikatu dira.

Oraingo honetan, gainera, parte-hartzaileen profil berri bat sartu da: LPS berri honen eraginpean egon daitezkeen eta EBekin lotutako garapen-proiektuak edo garapen-aurreikuspenak dituzten enpresak.

Gainera, EB LPSaren etorkizuneko hedapenaren inguruan gizarteak izan dezakeen kezka jaso nahi izan da. Kontzeptu konplexua eta oso teknikoa dela ulertuta, herritarrekin garatutako parte-hartzea herritarrek dituzten informazio-beharrak eta -itxaropenak identifikatzera bideratu da, Euskadin energia berriztagarrien garapenari dagokionez, eta, zehazki, lurraldean eragin fisiko handiena duten instalazioei dagokienez. Hori guztia kontuan hartuta energia berriztagarrien hedapena herritarren interes handiko gaia dela, eta mesfidantzak, ilusioak, itxaropenak eta kontrako sentrazioak nahasten direla bi helbururen inguruan: batetik, gure ekonomia eta gizartea deskarbonizatzeko beharrari erantzutea, energia berriztagarrien aldeko apustu irmoaren bidez; eta, bestetik, prozesu horrek gure elementu eta balio natural eta kulturalak ahalik eta gehien errespetatu ditzan lortzea.

2

TESTUINGURUAN JARTZEA. ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN LPSa EGITEKO PROZESUAREN
BARRUAN GARATUTAKO PARTE-HARTZE
PROZESUA

Energia Berriztagarrien LPSa

Lurralde Plan Sektoriala izaera operatiboko plangintza-figura bat da, eta lurraldearen antolakuntzari lotutako helburuak, gidalerroak eta jarduketak zehazten ditu sektore-eremu jakin baterako.

ZERGATIK DA BEHARREZKOA LURRALDE PLAN SEKTORIAL BAT ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EREMUAN?

Energia berriztagarrien hedapena ahalbidetzeko, zeinak, aldi berean, honakoak lortzeko aukera emango baitu:

- Euskadin energia berriztagarrien ekoizpena handitzeko helburuak betetzea
- Energia berriztagarrien hedapena modu antolatu eta planifikatuan egingo dela bermatzea, herritarren interesak errespetatuz eta lurraldeko ingurumen-balioen zaintzarekin bat etorriz.

Behin onartuta, Planak bi elementu nagusi zehaztuko ditu:

1.- ZONIFIKAZIOA. Energia berriztagarrien garapena Euskadiko elementu natural eta kulturekin bateragarria dela bermatzeko. Bi zonifikazio-mota ezartzen ditu: “zonifikazio positiboa” (EB LPSan jasotako berriztagarri-mota bakoitza garatzeko eremu ezin hobek) eta “zonifikazio negatiboa” (bazterketa-eremuak, non zenbait teknologia berriztagarri ingurumen-edota lurralde- irizpideekin bateraezinak direla ulertzen baita).

2.- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PROIEKTUAK GARATZEKO GIDALERROAK. Proiektu horiek beren bizi-ziklo osoan zehar orientatzeko gidalerroak dira (diseinatzea, egitea, abiaraztea, ustiatzea eta deuseztatzea) eta Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko derrigorrezko irizpideak hartzen dituzte barne.

PLAN HAU EGITEKO DERRIGORTASUNA JASOTZEN DUEN ARAUDIA

- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituena.

ZER ETAPA DITU PLANAREN LANKETAK ETA NOLA LOTZEN DA PARTAIDETZA PUBLIKOAREKIN? ZER UNETAN GARATU DA PROZESU HAU?

Lurralde Plan Sektorial baten lanketa hainbat fasetan egituratzen da, eta mailaz maila egiten da aurrera gero eta gehiago zehaztuz eta partaidetza publikoa nahiz dagozkion ingurumen-azterlanak eta -adierazpenak txertatuz. Partaidetzaren ikuspuntutik, indarreko araudiak parte-hartze publikorako gutxieneko baldintza batzuk ezartzen ditu eta, nahi izanez gero, beste zenbait partaidetza-jarduera osagarri ere sar daitezke.

Euskadiko EB LPS: Hasierako Onespen Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Strategikoa
PARTE-HARTZEAREN HIRUGARREN FASEAREN MEMORIA

Euskadiko EB LPSaren kasuan, Eusko Jaurlaritzak LPSaren lanketa- eta onarpen-faseetan luzatu den parte-hartze eta kontsulta publikoko prozesu bat aukeratu du, legez eska daitekeena baino haratago doana.

2021eko maiatzean parte-hartzearen lehenengo fasea gauzatu zen, Planaren Oinarrizko Dokumentuari zegokiona. Esteka honetan dago eskuragarri prozesu horren azalpen-memoria:

[Parte-hartzearen memoria. 1. fasea](#)


Parte-hartzearen hasierako fase horretan jasotako ekarpenak erabiliz, Aurrerapen Dokumentua eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa egin ziren. Dokumentu horiek parte hartzeko bigarren fasean sartu ziren. Bigarren fase horren azalpen-memoria esteka honetan aurki daiteke:

[Parte-hartzearen memoria. 2. fasea](#)

Behin parte-hartzearen bigarren fasearen ekarpenak sartuta, Hasierako Onespen Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa egin dira. Dokumentu horien gainean garatu da parte hartzeko prozesu hau, eta aldi berean gauzatu da, jendaurreko informazioaren nahitaezko izapidea errazteko prozesu gisa.

Jarraian, idazketa-prozesuaren garapena eta bilakaera zehazten dituen grafiko bat dago, eta bertan sartu dira herritarrek eta eragileek parte hartzeko uneak.

EUSKADIKO EB LPSa EGITEKO PROZESUA ETA PARTE-HARTZE PUBLIKOKO PROZESUAREN FASEAK



AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Prozesuaren fase honetarako Hasierako Onespen Dokumentuaren eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren gaineko dokumentazio erabilgarri guztia aurkeztu da. Honako esteka honen bidez libreki eskura daiteke dokumentazio hori:

 [Dokumentaziorako sarbidea a documentación](#)

Dokumentazio horrek EB LPSaren kartografia osoa hartzen zuen barne, formatu bektorial berrerabilgarrian.

Gainera, eragileekin egindako informazio-tailerretan dokumentazio horren aurkezpen laburtua erabili da, eta posta elektronikoz banatu zaie eragileei tailerrak amaitzean.

3

PARTE HARTZEKO GAITUTAKO KANALAK ETA PARTE-
HARTZEAREN ADIERAZLEAK

Parte-hartzeko gaitutako kanalak eta parte-hartzearen adierazleak

Parte hartzeko 3 kanal gaitu dira, argi bereiztutako bi kolektibori zuzenduta:



ERAGILEAK

1. kanala: INFORMAZIO-TAILERRAK + ONDORENGOKO ONLINE FORMULARIOA

Lehen esan bezala, tailer hauen helburua informatzea izan da, batez ere. EB LPSaren egungo lantze-egoera osatzen duten dokumentuei buruzko lehen eskuko informazioa eman nahi zuten tailerrek, eragileek egin zitzaizkien alegazioak haren ezagutza oinarriaren batetik egin zitezkeen.

Horretarako, tailerrek 3 zati argi berezita izan dituzte:

- Lehenengoan, Plana idatzi duen taldeak dokumentuei buruzko azalpena eman du.
- Bigarrena dokumentuei buruzko galderak eta argibideak egiteko erabili da.
- Hirugarrenean, alegazio formalak egiteko bidea eta epeak gogoratu dira, eta eragileak bide hori erabiltzera animatu dituzte. Gainera, EB LPSaren zati formala ez den, baina implementatzeko garrantzitsua izan daitekeen gai bati buruzko ekarpenak egiteko gonbita egin zaie: plan honen arabera abian jartzen diren proiektuei buruzko gizarte-informazioa eta -komunikazioa.

Horrez gain, tailerren helburu nagusia ez bazen ere, parte hartu duten eragileetako batzuek iruzkinak eta ekarpenak egin dituzte, eta ziur asko alegazio formal gisa aurkeztuko dira geroago.

Tailerrok 2 orduko iraupena izan dute, eta maiatzaren 30etik ekainaren 2ra bitartean gauzatu dira.

Guztira, 8 tailer egin dira eta Euskadiko energia-, elkarre-, aditu- eta erakunde-arloko enpresa-sektoreekin lotutako 128 pertsonak hartu dute parte. Partaide izandako eragileen artean, 19k bete dute online formularioa ekarpenak egiteko, guztira 20 formulario batu dira; izan ere, kasu batean eragile beraren bi formulario jaso dira.

ERAGILEEKIN EGINDAKO TAILERREN ZERRENDA

Eguna eta ordua	Erakundeen tipologia	Parte hartutako eragileen kopurua
Maiatzaren 30ean, 12:00etatik 14:00etara	LPSaren zuzenagoko eragina izango luketen instalazio-proiektuak dituzten enpresak	14
Maiatzaren 30ean, 15:30etik 17:30era	Elkarteen sektorea (ingurumen- eta gizarte-esparruak) eta erakunde sindikalak. Nekazaritza-sindikatuak eta lehen sektorea barne	9
Maiatzaren 31ean, 09:00etatik 11:00etara	Unibertsitatea, elkargoak eta adituak	14
Maiatzaren 31ean, 12:00etatik 14:00etara	Foru Aldundiak	11
Ekainaren 1ean, 09:00etatik 11:00etara	Bizkaiko udalerrriak	25
Ekainaren 1ean, 12:00etatik 14:00etara	Arabako udalerrriak	14
Ekainaren 2an, 09:00etatik 11:00etara	Gipuzkoko udalerrriak	23
Ekainaren 2an, 12:00etatik 14:00etara	Enpresa-elkarteak eta energia-sektoreko enpresak (oro har)	18
GUZTIRA		128

OHARRAK:

1.- Zenbait kasutan, agenda-arrazoiengatik, eragileren batek parte hartu zuen bere tipologiagatik zegokionaz bestelako tailer batean. Goiko taulan, „eragile horiek zegokien tipologiako tailerrean zenbatu dira.

2.- Foru Aldundiei zuzendutako tailerrean hainbat sailek edota zuzendaritza orokorrek hartu zuten parte. Kasu horretan eragile bakartzat zenbatu dira

TAILERRETAN PARTE HARTUTAKO ERAGILEEN ZERRENDA

Bertaratuen tipologia	Erakundeak
LPSaren zuzenagoko eragina izango luketen instalazio-proiektuak dituzten enpresak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ BayWa r.e Projects España ▪ Capital Energy ▪ Estudio de urbanismo y arquitectura Peñalba ▪ Euskal Haizie ▪ Geu Consultoría ▪ Ibersun Renewable ▪ Orexa EBK ▪ Renovables F.B. ▪ RTB Energy ▪ Solaria Energía y Medio Ambiente ▪ Statkraft
Elkarteen sektorea (ingurumen- eta gizarte-esparruak) eta erakunde sindikalak. Nekazaritza-sindikatuak eta lehen sektorea barne	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskal Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea ▪ Nekazaritza Ingeniarrien Elkargo Ofiziala ▪ Ekologistak Martxan ▪ Euskal Nekazarien Batasuna ▪ Euskal Herriko Itsas Foroa ▪ Gipuzkoako Baso Elkartea ▪ Unión Agroganadera de Álava / Arabako Nekazarien Elkartea
Unibertsitatea, elkargoak eta adituak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Energia Klusterraren Elkartea ▪ AZTI ▪ Aragoi, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ingeniarrien Elkargo Ofiziala ▪ Greenpeace ▪ Mondragon Unibertsitatea ▪ Orkestra ▪ Tecnalia ▪ UPV-EHU
Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arabako Foru Aldundia ▪ Bizkaiko Foru Aldundia ▪ Gipuzkoko Foru Aldundia
Bizkaiko udalerrriak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bakioko Udala ▪ Balmasedako Udala ▪ Basauriko Udala ▪ Berrizko Udala ▪ Elorrioko Udala ▪ Etxebarriko Udala ▪ Galdakaoko Udala ▪ Gornizko Udala ▪ Larrabetzuko Udala ▪ Mallabiako Udala ▪ Mungiako Udala ▪ Urduñako Udala ▪ Sondikako Udala ▪ Ugao Miraballeseko Udala ▪ Zallako Udala ▪ Zierbenako Udala ▪ Nerbioi Ibaizabaleko Mankomunitatea

Arabako udalerriak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Vitoria-Gasteizko Kontzejuen Elkartea ▪ Amurrioko Udala ▪ Aramaioko Udala ▪ Laudio/Llodioko Udala ▪ Zuiako Udala ▪ Elorriagako Kontzejua ▪ Gorbeialdeko Kuadrilla ▪ Lantenoko Administrazio Batzarra
Gipuzkoako udalerriak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arrasateko Udala ▪ Arrasate-Mondragóngo Udala ▪ Beasaingo Udala ▪ Beizamako Udala ▪ Elduaingo Udala ▪ Errenteriko Udala ▪ Getariako Udala ▪ Irungo Udala ▪ Legazpiko Udala ▪ Leintz Gatzagako Udala ▪ Oiartzungo Udala ▪ Oñatiko Udala ▪ Ordiziako Udala ▪ Orexako Udala ▪ Soraluzeko Udala ▪ Urnietako Udala ▪ Villabonako Udala ▪ Zarauzko Udala ▪ Zumarragako Udala
Enpresa-elkarteak eta energia-sektoreko enpresak (oro har)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alerion Spain ▪ Euskadiko Paperaren Kluster Elkartea ▪ Capital Energy ▪ Euskadiko Energia Klusterra ▪ Cluster GAIA ▪ Confebask ▪ Goiener ▪ Iberdrola Renovables ▪ SIDEREX ▪ Solaria Energía y Medio Ambiente ▪ Solarisfv ▪ Statkraft ▪ UNIORTBILBAO

EKARPENAK JASOTZEKO ATONDUTAKO ONLINE
FORMULARIOA ERABILIZ, EKARPENAK EGIN DITUZTEN
ERAGILEEN ZERRENDA

Vitoria-Gasteizko Kontzejuen Elkartea
Arrasate-Mondragongo Udala
Berastegiko Udala
Begarako Udala
Getariako Udala
Laudio/Llodioko Udala
Ordiziako Udala
Peñacerrada-Urizaharrako Udala
Soraluzeko Udala
Zallako Udala
AZTI
BayWa r.e Projects España
Gorbeialdeko Kuadrilla
Gipuzkoako Baso Elkartea
Lantenoko Administrazio Batzarra
SIDEREX
Solaria Energía y Medio Ambiente
Statkraft
UPV/EHU (2 galdetegi desberdin)



HERRITARRAK

2. kanala: IREKIAN EGINDAKO DEBATE IREKIA

Edozein herritarri irekitako debatea aurkeztu eta ahalbidetu da, eta horren bidez ez da ekarpenik jaso.

3. kanala: FOCUS GROUP-AK HERRITARREKIN

Focus Groups horien helburu nagusia izan da herritarren iritziaren elementu kualitatiboak identifikatzea, EB LPSaren etorkizuneko garapenetik eratorriko diren instalazioak abian jartzeari eta kudeatzeari lotutako herritarren informazio- eta partaidetza-elementuak izateko beharrari eta elementu horiek gauzatzeko moduari dagokienez. Gai osagarri gisa, lurraldearen erabileren arteko orekin lotutako gaiak jorratu dira (berriztagarrien instalazioetarako erabilera vs. beste erabilera eta balio batzuk), eta parte-hartzaileek autokontsumo komunitarioko ekimenetan parte hartzeko duten prestasuna eta, zehazki, tokiko energia-komunitateetan parte hartzekoa.

3 Focus Group garatu dira, partaideak bizi ziren udalerraren profilaren arabera banatuta, eduki daitezkeen pertzepzio desberdinak ezagutzeko: esparru hiritarrago batetik landa-esparru batera, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko eremua barne.

Focus Group-ek osaera heterogeneoa izan dute, partaideen bizilekuari (Lurralde Historikoa), adinari eta sexuari dagokienez eta ekainaren 6tik 8ra bitartean garatu dira.

Kasu guztietan hartu da kontuan parte-hartzaileek ez zutela energia berriztagarriekin eta/edo energia-sektorearekin lotutako ezagutza teknikorik, eduki behar, ezta ingurumena babestearekin lotutako erakundeetan partaidetza aktiborik ere.

Focus Group bakoitzak 2 orduko iraupena izan du. 18 pertsonak hartu dute parte, 6 Focus Group eta Lurralde Historiko bakoitzeko.

EGINDAKO FOCUS GROUP-EN ZERRENDA

	Landa-eremua (2.500 biztanletik beherako udalerriak)	Tarteko eremua (2.500 eta 39.999 biztanleren arteko udalerriak)	Hiri-eremua (40.000 biztanletik gorako hiriburuak eta hiriak)
Data	Ekainaren 6a, 19:00etatik 21:00etara	Ekainaren 7a, 19:00etatik 21:00etara	Ekainaren 8a, 19:00etatik 21:00etara
Parte-hartzaileen kopurua, guztira	6	6	6
Emakumeak (%)	% 50	% 50	% 50
Gizonak (%)	% 50	% 50	% 50
18 eta 35 urte bitartekoak(%)	% 33	% 33	% 16
36 eta 60 urte bitartekoak (%)	% 50	% 50	% 66
60 urtetik gorakoak (%)	% 16	% 16	% 16

FOCUS GROUP-ETAN MAHAIGAINERATUTAKO GALDERAK

1.- Energia berriztagarriei buruzko gizarte-ezagutza

Zuen ustez, gizarte moduan informazio nahikoa daukagu energia berriztagarriei buruz? Zer informazio osagarria jakin beharko litzateke? Zer kanal erabili beharko lirateke?

2.- Erabilera-orekak

Gizarte gisa maila guztietan (Europar Batasuna, Estatuak, Euskadi) gain hartzen ari garen konpromisoek argi erakusten dute energia berriztagarrien ekoizpena nabarmen areagotu behar dugula, 2050ean kontsumitzen dugun energiaren % 100ek jatorri berriztagarria izan dezan. Gaur egun Euskadiko zenbatekoa %20tik beherakoa dela gogoan hartuta, helburu hori lortzeko edo hara hurbiltzeko (bider 5 biderkatu behar da, salbu eta askoz energia gutxiago edo/eta modu eraginkorragoan kontsumitzeko gai bagara), dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak aprobetxatzeaz gain (etxebizitzan, eraikinen, eta ekipamendu publikoen, industria-pabiloien... estalkiak), urbanizatu gabeko lurzorua okupatu beharko dugu.

Biztanle gehienak instalazio berriztagarriak areagotzearen alde daude, baina gizarte-debate handiagoa dago instalazio-mota horiek non kokatu behar diren erabakitzeko, batez ere dentsitate handiko lurraldeetan, Euskadin, adibidez.

Zein da zuen iritzia debate horri buruz? Non egon beharko luke orekaguneak berriztagarrien ekoizpen handiagoaren eta beste balio batzuk (nekazaritza-lurrak,paisaia...) errespetatzearen artean? Horren harira, ba al dago zuentzat "marra gorririk"? Zeintzuk lirateke zuen "marra gorriak"?

3.- Sustatzaile pribatuen proiektuak

Zer iritzi duzu elektrizitatea sarera isurtzeko "eskala-handiko" proiektu berriztagarriak izateari buruz (hainbat aerosorgailuk osatutako parke eolikoak, neurri jakin bateko eguzki-baratzeak)?

4.- Herritarrentzako informazioa

Industria-motako instalazioei dagokienez, zer informazio-mota jakin nahiko zenukete proiektuei buruz, instalazioa sortu baino lehen? Zein bitarteren bidez? Zuen ustez, herritarrek era horretako proiektuetan nolabait hartu behar dute parte? Nola? Zer alderdi lirateke funtsezkoak instalazio edo proiektu berriztagarri batek harrera ona izan dezan ezartzen den eremuko biztanleen artean?

Eta behin instalazioa martxan egonda, zer informazio-mota jakin nahiko zenukete proiektuei buruz? Zein bitartekoren bidez?

5.- Autokontsumoa




Ba al dakizue zer den komunitate energetiko bat?

Aukera interesgarria iruditzen zaizue ekoizlearen eta kontsumitzailearen figurak fusionatzea?

Prest egongo zinatekete komunitate energetiko batean parte hartzeko? Nola edo zein egoeratan?

Energia aurrezteaz, energia garbia ekoizteaz eta "energiaren nolabaiteko demokratizazioa" eragiteaz gain, zuen ustez, komunitate energetikoei bestelako onurarik sortzen al dute? Zein?

HERRITARREKIN EGINDAKO FOCUS GROUP-EN IRUDIAK



Euskadiko EB LPS: Hasierako Onespen Dokumentua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa
PARTE-HARTZEAREN HIRUGARREN FASEAREN MEMORIA

4

JASOTAKO IRITZI ETA PROPOSAMEN
NAGUSIA

ERAGILEEN aldetik jasotako IRITZIAK ETA PROPOSAMENAK

EB LPSa ONARTU OSTEAN ABIAN JARRIKO DIREN INSTALAZIOEI BURUZKO KOMUNIKAZIO-POLITIKAREN BEHARRARI DAGOKIONEZ

Galdera horri erantzun dieten eragile guztiek (13 eragile) horrelako politika batek egon beharko lukeela adierazi dute.

Zabaldu beharreko lehenetsuneko informazioari dagokionez, ekarpen nagusiek **“informazio guztia”** jendartean zabaltzearekin dute zerikusia. Halaber, zenbait ekarpen egin dira informazio hori **herritar arrunt batek ulertzeko modukoa izatea** ahalbidetu behar duten irizpideak erabiltzearen garrantziari buruz.

Horrez gain, eragileren batek zehaztu du proiektuek barne hartzen dituzten konpentsazioei buruzko informazioa eman behar dela.

Informazio hori komunikatzeko erabili beharreko bitartekoei dagokienez, askotariko baliabideak proposatu dira: aldizkari ofizialetan eta erakunde-webguneetan argitaratzea, gizarte-sareak erabiltzea, bizilagunekin aurrez aurreko bilerak edo/eta tailerrak egitea, ohiko komunikabideak baliatzea (prentsa idatzia, irratia, telebista).

PARTE HARTZEKO ETA JENDAURREAN JARTZEKO PROZESUAREN BALORAZIOARI DAGOKIONEZ

Balorazio kuantitatiboari dagokionez, ezin da eman, zeren eta 3 eragilek bakarrik erantzun baitiote galdetegiko galdera horri.

Prozesuaren alderdi positiboenei dagokienez, nabarmentzekoak dira eskaini den **ikuspegi integrala** eta **azalpen teknikoen sakontasuna**.

Hobetu beharreko elementu nagusi gisa aipatu da komenigarria izango litzatekeela **aurkezpenak edo bilerak maila lokalagoan eta ez hain globalean egitea**.

PLANAREN EDUKIARI DAGOKIONEZ

Tailerren helburu nagusia ez bazen ere, bertan egin diren zenbait iruzkin nabarmen jaso dira.

Lehenetsuneko kokapenei dagokienez, proiektuak sustatzen dituzten zenbait enpresak ohartarazi dute, eskura dituzten xehetasuneko azterlanetan LPSak proposatutakoak baino eremu garbi optimo hobeak daudela.

Foru Aldundian ingurumena babesteko sailek ohartarazi dute zonifikazioari eragin liezaiokeen araudia sortzen ari dela.

Ingurumen-sektoreak azpimarratu du zuhurtziaz jokatu behar dela berriztagarriak ekoizteko instalazioen osagarriei dagokienez (lotutako obrak, sortutako energia banatzeko sistemak, ...), eta, halaber, biztanleguneekiko distantzia handitu behar dela, nahiz eta gune sakabanatuak izan.

Hortik guztitik, kontuan hartu beharreko elementu batzuk ondorioztatzen dira:

- Administrazioek eta sustatzaileek behin eta berriz eskatzen dute ZLS (Aukeratutako Kokapen Eremuak) eolikoak ez daitezela lineak izan, baizik eta poligono jarraituak, interpretazioa

errazteko eta parke eoliko bat ezartzeko eraginkorragoak izateko. Horrela, ZLS berak osatzen dituzten lineak batzeko eskatzen da, etenak egon ez daitezen, eta buffer bat aplikatzeko, interpretatzen hobekien diren eta parke eoliko bat benetan egokitzeko erraztasun handiagoa duten poligonoak izan daitezen, poligono horiek bazterketa-eremuekin gainjartzea saihestuz. Horri dagokionez, araudiaren 20.5 eta 21. atalak aldatzeko/argitzeko eskatu dute, eolikoaren kasuan % 20 handitzearena zaila iruditzen baitzaie lineak izanda.

- Sustatzaileak bat datoz baliabide eolikoaren eredia gaur egun ezartzen ari denaren antzeko aerosorgailu mota batekin berrikusteko premian. Kontuan hartu den eredia (G132, 3,465 MW) deskatalogatuta dago, eta orain 5, 6 eta 7 MWko aerosorgailuak ezartzen ari dira. Beste sustatzaile batzuek proposatu dute baliabide eolikoko eremuak kalitatearen arabera mailakatzea, ez soilik "ustiagarria/ez ustiagarria" kategoriaren arabera, baliabideak lurraren gaitasunaren antzeko graduazioa izan dezan.

- Sustatzaileek SETrako (azpiestazio elektrikoak) 5 km-ko erradioa berriz aztertzea eskatu dute, energia fotovoltaikoarentzat egokiak diren eremuak ezartzeko. Izan ere, gune horien egungo egoera dela eta, ez dago horien sarbide-ahalmenerako ziurtasunik. Hortaz, 5 km baino gutxiagora SET bat edukitzeak ez du esan nahi bertara konekta zaitezkeenik, izan ere, baliteke gaitasunik ez izatea, behin eta berriz gertatzen ari den bezala. Horrek, gainera, eragina izan dezake "Eskala handiko instalazioak LPSko aukeratutako kokapen-eremuetatik kanpo ezartzean" (Araudiaren 24. artikulua); izan ere, haren 1. atalaren arabera, ZLStik kanpoko instalazioak "aldeko baliabideko" eremuetan baino ezingo lirateke kokatu, eta, beraz, fotovoltaikoaren kasuan, SET batetik 5 km baino gutxiagora egon beharko luke, ezinbesteko baldintza baita "aldeko baliabidetzat" hartzeko. Hori energia eolikora estrapolatu daiteke; izan ere, sustatzaile batzuek esan dute parke eoliko baten bideragarritasuna frogatu dezaketela "aldeko baliabidetzat" hartzeko ezarritako haize-baldintzak eta ordu baliokideak bete beharrik izan gabe, eta eskakizun hori, aipatu den bezala, baldintza da ZLStik kanpoko instalazioak ezarri ahal izateko. Laburbilduz, ez da egokitzat jotzen ZLStik kanpoko instalazioak ezartzeko "aldeko baliabidea" egoteko baldintza bete behar izatea (24.1 artikulua).

- Memoriaren zati batean honako hau adierazten da: "Halaber, gaitasun txikiko eremuak gaitasun ertaineko eremuetan hartu ahal izango dira ondorio guztietarako, baldin eta, ingurumen-sentsibilitate handiko eremuetan egonik, eremu horietan aldeko baliabidea dagoela justifikatzen bada. Era berean, gaitasun oso txikiko eremuak gaitasun txikiko eremuetan hartu ahal izango dira ondorio guztietarako, baldin eta, ingurumen-sentsibilitate handieneko eremuetan egonik, eremu horietan aldeko baliabidea dagoela justifikatzen bada ". Hala ere, araudian ez da argitzen nola egin daitezkeen kategoria-igoera hori, eta, beraz, egokia litzateke hori gauzatzeko modua garatzea.

- Herriguneez 500 metroko distantziari dagokionez, zenbait administrazioek eta sustatzailek iradoki dute energia fotovoltaikorako irizpidea malgutzeko aukera; izan ere, energia fotovoltaikoaren kasuan buffer hori sortzeko arrazoia sor daitezkeen paisaia-irizpideak dira, eta eragin horiek pantaila bisualak bezalako neurriekin arindu litezke, eta, beraz, irizpide hori esandako neurria betetzearen baldintzapean jar daitezke. Ulertzen da irizpide kaltegarria dela nahiko instalazio handietarako, zeren eta, jabeekin egindako akordioen barruan, zenbait lursail distantzia horretatik behera sartzeko eska baitezakete proiektuek, proiektuari jarraitutasuna eta bideragarritasuna emateko.

FOCUS GROUP-ETAN HERRITARREN aldetik jasotako IRITZIAK ETA PROPOSAMENAK

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PERTZEPZIOA ETA NABARMENTASUNA EUSKADIN

Energia berriztagarriei dagokienez, talde guztietan azaldu da **gai horri buruzko informazio nahikoa falta dela**. Saiotetan parte hartu duten pertsona guztiek adierazi dute ez dituztela ezagutzen energia berriztagarriei buruzko alderdi teknikoak eta ekonomikoak.

Hala ere, aurreko faseetan garatutako focus groupetan jasotakoari dagokionez, **arlo horri buruzko ezagutza areagotu egin dela ikusten da, eta, halaber, energia berriztagarriak gehiago jotzen direla energia-kontsumoaren beharrei erantzuteko aukera bideragarritzat (ez bakarria, baina bai osagarria).**

Oro har, gehiago zabalak energia berriztagarriak autokontsumoarekin eta etxeko instalazioekin lotzen ditu. **Zaila da igarotzea instalazio txikietan oinarritutako "diskurtso mikro" batetik** (adibidez, eguzki-plakak eraikinetako teilatupeetan, geotermia-instalazioa zenbait kasutan eta ibilgailu elektrikoek erosteketa) **beste eskala bateko energia-ekoizpen berriztagarriko "diskurtso makro" batera.**

Instalazio handiak, hala nola eguzki-baratzeak eta energia eolikoa ekoizten duten errotak... , **ez dira ezezagunak herritarrentzat**, baina **diskurtsoan urrunagokoak dira**, eta ia beti energia ekoizteko eta merkaturatzeko merkaturatzaile tradizioz hartuta duten enpresa handiekin lotzen dira.

Halaber, **handitu egin da komunitate energetikoen existentziari** buruzko **ezagutza**, aurreko faseekin alderatuta. Ezagutza hori, oro har, nahiko azalekoa da oraindik, baina gai horren gaineko informazio-bilerei buruzko aipamenak egiten dira, baita inguruan autokontsumorako dimentsio jakin bat duten instalazio-proiektuei buruzkoak ere.

Alde positiboetan, honako alderdi hauek nabarmendu dira:

- Energia berriztagarriak, funtsean, **etorkizun iraunkor eta itxaropentsu** batekin lotzen dira.
- Ildo horretan, urratsez urrats **gizarte konprometitua eta, batez ere, energia-iturri horien aldeko apustua egiteko beharraz jabetua lortzeko beharrezkin** bat datoz partaideak.
- Energia berriztagarriek ingurumenean aldaketa bat egiteko gaitasuna dutela esaten da, energia fosilek eragindako ondorio negatiboak lehengoratu dituenak.
- Bestalde, **energiaren kontsumo independenteari ate bat irekitzen zaiola** sumatzen da: pertsona/ etxe bakoitzak bere energia propioa ekoiztuko balu, **kontsumo energetikoaren eredia enpresa handietatik** eta horiek energiaren prezioetan eragina izateko duten gaitasunetik **aldenduko litzateke**.
- **Administrazio Publikoek instalazio berriztagarriak ekonomikoki sustatzen dituztelako** sententzia orokortua dago; beraz, dirulaguntzak eskuratzeak iturri berriztagarrien aldeko apustua egiteko interesa piztu dezake.
- Gainera, energia berriztagarriak **itzulerarik gabeko bide** moduan ulertzen dira, **baita etorkizunean energia-eredu bideragarri bat** lortzeko jarraitu beharreko **bide egoki gisa** ere.

Elementu kritikoei dagokienez, honako hauek hauteman dira:

- Energia berriztagarriak **beste batzuk baino garestiagoa den** energia-iturri batekin identifikatzen dira, "heldugabetasun teknologiko" egoera batean hautematen direlako, eta une horretan energia horien tratamendua, biltegiatzea eta kudeaketa garestiagoa delako iturri tradizionalen bidez lortzen den energiarena baino. Nolabaiteko beldurra dago, balizko kostu-alde horrek kontsumitzaileek ordaindu beharreko prezioan eragina izan dezakeelako.
- Era berean, instalazio horien **onuradunak enpresa handiak direlako** pertzepzioa dago, eta haiek dutela berriztagarriak garatzeko interes handiena. Horren harira, herritar arruntek, oro har, **kaltetuta** ikusten dute euren burua **instalazioen balizko hurbiltasunagatik**.
- **Tamaina handiko instalazioen bigarren mailako ondorioei buruz gardentasun-gabezia** dagoelako pertzepzioa sumatu da, eta energia berriztagarriari egotzitako elementu positiboak eta abantailak soilik ematen direla ezagutzera, eta ez instalazioetatik hurbil dauden ingurumenean eta pertsonen, animalien eta floraren osasunean izan ditzaketen ondorioak. "Ona baino ez dizute kontaktzen".
- Instalazio berriztagarrien efizientziari eta eraginkortasunari dagokienez, mesfindantzak ere badaude, eta zenbait pertsonak aipatzen dute, batzuetan, **etxeko instalazioen mantenuaren kostua sortzen duten energia baino handiagoa dela**. Duen garapen teknologikoagatik oraindik nahikoa interesgarria ez den eta herritarrentzat benetako alternatiba ez den energia-iturri gisa ikusten da.
- Partikular gisa berriztagarrien instalazio bati ekitea erabakitzen bada, **horrek hasierako inbertsio partikular handia eskatzen duela** nabarmentzen da, eta jende guztiak ez duela hori egiteko gaitasunik. **Laguntza publikoek handiagoak izan beharko luketelako** ustea dago **eta/edo azkarrago iritsi beharko luketela** inbertsioa egin ahal izateko, maila partikularrean hasierako hain ordainketa handia egin beharrik izan gabe. "Energia berdea gure lepotik".
- Gainera, energia berriztagarrien instalazioa batzuetan modu interesatuan erabili izan delako sentazioa dago, hau da, maila partikularrean edo jabekideen erkidegoetan, dirulaguntzak justifikatzeko edo energia-ziurtagiriak lortzeko, baina gerora **ez dela instalazio horien jarraipenik egiten** eta, batzuetan, erabili gabe geratzen direla edo bertan behera uzten direla.

EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Euskadiko Energia Berriztagarrien Plan Sektoriala, oro har, **herritarrek ezagutzen ez duten** plan bat da.

Hala ere, **ezagunak dira energia berriztagarrien garapenarekin lotutako beste plangintza batzuk**. Plangintza horrek konfiantza sortzen du pentsatuta eta antolatuta dagoen garapen baten inguruan. Ildo horretan, "adituenganako konfiantzaz" hitz egiten da.

EB LPSaren helburuak azaldu ondoren, **modu positiboan baloratzen da plan hori egotea**, baina elkarrizketan sakontzean ikusten da oso zaila dela Planaren beste helburu ez-zuzenetatik bereiztea: berriztagarriak sustatzea etxeko edo oso maila txikiko instalazioetan, kasu.

Bazterketa-eremuak eta eremu babestuak definitzeari dagokionez, balorazio positiboak jaso dira, interes bereziko naturguneen babesari egiten dion ekarpenagatik. Horren harira, kezka adierazi da **tamaina jakin bateko industria-instalazioen proiektuek berariaz har dezaten barne instalazio horiek eragingo lituzketen ingurumen-arriskuen azterketa**.

Energia berriztagarrien garapen antolatuaren, - horrek paisaia bezalako alderdietan

“sakrifizioak” egiteko premia barne hartzen badu ere-, beharrari buruzko kontzientziario handiagoa sortzeko asmoz, partaideek adierazi dute **herritarren aurrean agerian jarri behar dela benetako klima-larrialdi nabaria dagoela.**

30 edo 50 urterako helburuak alde batera utzi gabe, **adierazle argiak eta epe laburrerako jomugak** finkatzea komeni dela aipatu da, errealitatea eta egoera herritarrengana hurbiltzeko. Epe luzerako helburu handiak, nahiz eta arau- eta/edo plangintza-esparru zabal batean beharrezkoak izan, urrunekoak eta irrealak dira gizartean energia-eredua aldatzeko premiaren inguruko kontzientzia sortzeko.

Aurreko faseetan jasotako sentsazio hura, "nire eremuan ez", desitxuratzen ari da, neurri batean, energia-egoeraz jabetzeko eta egoera horri konponbidea emateko zerbait egiteko behararen alde.

Garrantzitsua da nabarmentzea **diskurtsoaren aldea pertsona bakoitzaren bizilekuaren arabera,** energia berriztagarrien balizko instalazioen **zonifikazioari dagokionez.**

Landa-eremuetan bizi diren pertsonen kasuan, mota horretako instalazioek **gehien eragindako eremutzat** hartzen dituzte euren eremuak. Dena den, inguruaren mugak ezagutzen dituzte eta horrelako proiektuak **etorkizun iraunkorra lortzeko “kalte txikientzat eta ezinbestez onartzekotzat” jotzen dituzte** . “Argiaren zutoinak Hurdeetara iritsi zirenean, inor ez zen kexatu”.

Hala ere, **eremu hiritarragoetan bizi diren pertsonak, oro har, kezka handiagoa azaltzen dute natura-ingurunea babesteko,** noizean behin joaten baitira bertara aisialdiaz gozatzeko. “Ez diezazkigutela gure mendiak hondatu”

Ez da kritika handirik ikusten orain arte abian jarritako instalazioei buruz. Oro har, badirudi focus groupetan parte hartu duten pertsonak ez dituztela bereziki inbaditzailetzat jotzen, edo denborarekin paisaiari buruz duten ikuskeran integratzea lortu dutela.

Landa-eremuan bizi diren pertsonak, bereziki, aipatu dute **energia berriztagarriak landa-eremuetarako alternatiba ekonomiko bideragarria izan daitezkeela.** Hala ere, eremu hiritarragoetatik kritika handiagoa egiten zaio lurralde txiki batean instalazio handiek egingo luketen “hondamendi naturalari”.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOEI BURUZ JASOTAKO INFORMAZIOA

Lehenik eta behin, focus groupetan parte hartu duten pertsonak adierazi dute interesgarria izango litzatekeela **alderatzea iturri konbentzionalen energia ekoizteak duen kostua eta iturri berriztagarrietatik datozenen kostua. Pertsona horiek adierazi dute beren fakturan zerbait gehiago ordaintzeko prest egongo liratekeela, baldin eta berriztagarrien ekoizpen-prezioa handiagoa bada eta hori gardentasunez komunikatzen bada.**

Industria-mailako energia berriztagarrien instalazioak garatzeko aukera kontuan hartuta, honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatzen da:

- 1. Espazioaren okupazioa.** Instalazioaren hedatzea nolakoa izango den argi zehaztea, erabili beharreko lursailaren azalerari eta ezaugarriei dagokienez, baita hiriguneetara dagoen distantziari ere.
- 2. Egon daitezkeen afekzio eta eragozpenak:**
 - Instalazioak sortuko duen **zarata** etxeetan edo pertsonak bizi diren tokietatik hurbil.
 - Sor daitezkeen itzala edo efektu bisuala**
 - Inguruan bizi diren pertsonentzat eta animalientzat **izan daitezkeen osasun-**

arriskuak

- Natura-ingurunean egon daitezkeen ondorioak.** Deforestazioa, hegaztiak, isurketak, ...
 - Hurbileko etxeen merkatu-balioaren balizko devaluazioa.**
3. **Itzulkinak ematea kaltetutako eremuei.** Nolabait, instalazioek eragin handiena izan duten eremu eta herrietan itzulkin ekonomikoa egiteko beharra adierazi da, haiek eragindako kaltearen ordain gisa.
 4. **Datu fidagarriak, kontrastatuak eta alderagarriak** jakinaraztea, emandako informazioa babesteko. “Zer ekartzen duen edo ekarriko digun frogatzea”.
 5. **Instalazioen kostuak eta ondorioak** jakinaraztea, alderdi guztietan **epe labur eta luzera**, hurbileko bizilagunentzat nahiz ingumenarentzat.

NOLABAITEKO DIMENTSIOA DUTEN PROIEKTUEI BURUZKO KOMUNIKAZIO-KANALAK

Energia berriztagarrien eskala handiko instalazioen balizko garapen eta hedapenaren komunikazioari dagokionez, **kanal anitzeko jarduerak egiteko** beharra aipatu da, **herritarrengana ahal diren baliabide guztien bitartez iristeko**, bai eremu baterako proiektu jakinak proposatzen direnean, bai oro har, herritarrak kontzientziatzeko eta horiekin komunikatzeko.

Badirudi **kontzientziazio-kanpainak** egin behar direla, **birziklapenaren gaiaren gainean egin zirenak bezalakoak**, horien bitartez, herritarrek energia berriztagarriei buruz duten ezagutza handitzeko ez ezik, **energia-ereduan eboluzionatzeko beharraz** eta ingurumen-erronkaren premiaz jabetzeko ere.

Horren harira, **haurrak eta gazteak** sartzan dira barnean, **aldaketaren bideratzaile gisa**. Izan ere, energia-ereduan eboluzionatzeko beharri buruzko kontzientziazioa **adin goiztiarrenetatik hasi behar da, hezkuntza-zentroetan pedagogia-lana eginez**.

Interesgarria da **beren esperientzia pertsonala eskaini ahal duten pertsonen testigantzak** eskura izatea, hala nola eraikitzekoa denaren antzeko instalazio batetik hurbil bizi diren pertsonarenak, beren esperientzia, onurak, hautemandako kalteak ...azaltzeko. Baina, halaber, gaian **adituak diren pertsonenak ere**, instalazio berriak herritarrei ekarriko dizkien ondorioak ahalik eta modurik objektiboenean helaraz ditzaten.

Era berean, komenigarria ematen du **komunikazioa zabaltzeko eta informazio zehatza jakinarazteko kanpainiak egitea** eremuan diseinatzen ari den proiektuari buruz, informazioa kasu bakoitzean eta xede-publiko bakoitzarentzat eraginkorrenak diren komunikabideen eta gizarte-sareen bidez helarazteko.

Proiektuek **komunikazio-plan bat izatea eskatzen da, proiektuan egin beharreko beste edozein azterlanarekin batera**, eta plan horrek gutxieneko elementuak jasotzea, hurbiltasunagatik eragin gehien izango duten herritarrei eman beharreko informazioak behar den kalitatea eta eraginkortasuna izango dituela bermatzeko..

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEKO EREDUAK

Energia berriztagarrien instalazioak modu partikularrean edo jabeekideen erkidegoetan jartzeko aukeraren aurrean, bereziki interesgarria da hainbat gairi buruzko informazio argia izatea: instalazioen mantentze-kostuak, ordaindu beharreko tasak, egindako inbertsioa amortizatze/ itzultzeko epe aurreikusiak.

Gardentasun-gabezia antzematen da enpresa merkaturatzaileekin sinatutako **kontratuen funtzionamenduan**. Izan ere, etxe edo komunitate energetiko bakoitzak bere instalazioen bidez ekoizten duen energia eskuratzeko interesa baino ez da ikusten enpresetan, eta, a priori, **partikularrak egoera txarragoan sentitzen dira**.

Komunitate energetikoaren garapenari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da **administrazio publikoa presente egotea**, energia-enpresen jardute onaren berme gisa, administrazio publikoaren parte-hartzea, eta zehazki tokiko administrazioarena, herritarren “defendatzaile” izan dadin,


Hala ere, EB LPSari buruz aurretik egin diren partaidetza-faseei dagokienez, **bilakaera** positiboa antzematen da **instalazio berriztagarrien enpresa-sustatzaileei emandako legitimitateri buruz**, horrelako inbertsioei heltzeko eta,aldi berean, horietatik etekin ekonomikoa lortzeko. Munta handiko instalazioek enpresa pribatuen oso inbertsio handia behar dutela ulertzen da, eta enpresok etekin ekonomikoa bilatzen dutela; baina, etekin hori ezin dela edozein kostutan eskuratu pentsatzen da.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ETORKIZUNA EUSKADIN

Hona hemen focus group-en azken hausnarketak, Euskadin energia berriztagarriek duten etorkizunaz:

- *“Un futuro incierto pero esperanzador”.*
- *“Una propuesta para ser trabajada a conciencia”.*
- *“Energías renovables sí, pero con transparencia y bien definidas”.*
- *“Imprescindibles para un futuro sostenible”.*
- *“Una energía más estudiada en profundidad. Una buena idea.”*
- *“Energía que tenga el objetivo de la sostenibilidad”.*
- *“Contra el cambio climático requerimos cambios en el modelo energético”.*
- *“Si seguimos así nos vamos a ahogar todos. Necesitamos un cambio y nos implica a todos”.*
- *“Futuro de cambios complicado pero necesario”.*
- *“Las energías renovables son una tendencia imprescindible”.*
- *“Todos estamos en el mismo barco y tenemos que luchar contra las olas”.*
- *“Todos tenemos que ceder en algo”.*
- *“No hay vuelta atrás”.*
- *“Todo el mundo quiere que el futuro quiere que sea ecológico y precioso, pero para eso tenemos que concienciar a la sociedad para mirar al futuro”.*
- *“Tener muy claro que ese va a ser el camino bueno”.*
- *“Vamos a empezar a dar pasos si esta es la apuesta”.*
- *“Un futuro renovable sin dudas y sin preguntas por resolver”.*
- *“Que nos den explicaciones de verdad”.*
- *“Me gustaría que todos podamos respirar aire puro y que no se estropeara el planeta, pero también sin destruir la naturaleza. Cambio sin destrozo del entorno. Sostenible verde, pero también natural”.*
- *“Deberíamos orientarnos a un futuro altruista. Aunque la energía sea más cara, orientarnos a dejar un mundo mejor a los que se quedan aquí. Ser más comunidad. Construir comunidad por el bien común”.*
- *“Las cosas han cambiado mucho. Concienciación y salir del individualismo. Campaña de comunidad”*

- “Auguro un buen futuro de crecimiento equilibrado con respeto a las zonas verdes, con el beneficio extra de la lluvia que tiene Euskadi”.



5

ONDORIOAK.
PARTE-HARTZEAREN ERAGINA

Ondorioak. Parte-hartzearen eragina

1. Parte hartzeko hirugarren fase honek aurreikusitako helburuak bete ditu. Eragileei dagokienez, batez ere, haiengana hurbiltzeko ariketa egin da, EB LPSaren dokumentuen gaurko edukia gidatu duten irizpideak azaltzeko. Planaren prestaketaren amaierako-fasean egonda, ekarpenak alegazio moduan aurkeztea erabaki da, jendaurreko informazioaren izapide formalaren bitartez.
2. Herritarrei dagokienez, 3 focus group antolatu dira, EB LPSa ez ezik Euskadin energia berriztagarriak hedatzearekin lotutako beste alderdi batzuk nola sumatzen diren identifikatzera bideratuak. Taldeak eratzeko aldagai nagusia izan da bizitokiaren landa/hiri-izaera. Oro har, eskala handiko berriztagarrien errealitateari buruzko ezjakintasun handia antzeman da. Nahiz eta egin den analisisia kuantitatibo baino kualitatiboagoa izan den, esan daiteke gai horren gaineko pertzepzioak nahiko desberdinak direla erreferentzia-udalerrriaren ezaugarrien arabera, eta berdin gertatzen da “industria-motako” instalazioen bidezko energia berriztagarrien ekoizpena areagotzearen ondoriozko zoru-okupazioaren eta lurraldearen beste balio batzuen arteko orekari buruz. Bitxia den arren, badirudi errezelo handiagoa dagoela hiri-eremuan landa-eremuan baino, instalazioekiko gertasunagatik, azken horrek eraginik handiena jasotzen badu ere.
3. Ezjakintasun handi hori gorabehera, gero eta kontzientzia zabalagoa antzematen da herritarrengan, energia berriztagarriak eskala handiago batean hedatzea garatu beharreko tresna nagusietakotzat jotzen baita Euskadin klima-erronkari erantzuteko.
4. Eskala jakin bateko berriztagarrien proiektuen gainean herritarrei ematen zaien informazioa zaintzeari dagokionez, herritarrak eta eragileak bat datoz horren garrantziari buruz. EB LPSak berak heltzen dion gaia ez den arren, informazio egokia (baita parte hartzearekin lotuta ere) funtsezko lanabesa izan daiteke berriztagarriak eskala horretan garatzeak dakartzan inplikazio eta arriskuen onarpen handiagoa lortzeko.